

Aurreko ipuin liburuaren «B aldea»

Bederatzi ipuinekin osatutako 'Ahazten diren gauzak' liburu argitaratu du Aritz Gorrotxategik • Memoriaren presentzia nabarmena dute

Miren Garate Donostia

Ahazten diren gauzak (Erein) liburu ipuinekin «tragikotasun lasai bat» dariela esan du Inazio Mujika editoreak, eta «pesimismo irribarretsua» kontzeptua ere erabiltzen duela kontatu dio Aritz Gorrotxategi idazleak (Donostia, 1975): «Tonua, beharbada, argia da, ironikoa, samurra; badirudi gauza arrunt bat kontatzen ari naizela, baina atzean badago tragedia bat, eta hori azaleratzen saiatu naiz». Orain urtebete kaleratu zuen *Zer egingo dugu orain opariekin?* (Algaida, 2017) ipuin bilduma, eta biniloen garalak gogora ekarrita, liburu berria haren «B aldea» dela esan du. Ukitu sozialeko gaiak ziren nagusi han, eta gai horiek errepikatzen dira Ahazten diren gauzak-en ere; hala ere, gai unibertsalek heriotza, eromena, bakardadea – presentzia handiagoa dute.

Izenburuan bertan ikusten den bezala, memoria da liburu gai nagusietako bat. «Galdere da: nork aukeratzen ditu gogora ekarri nahi ditugun memoriak? Zergatik pilatzen dira pasarte batzuk eta gainerakoak galdu?», gogoeta eginez hasten du lehen ipuina Gorrotxategik, eta Freudek esandakoekin erantzuten die, memoria kontuetan ez dela ezer menturaz gertatzen esanez. «Gu geu gara gogoratzen dugunaren eta ez dugunaren erantzule. Bitxia da onartzea: geu gara gure memoriaren arduradun bakarrak».

Bederatzi ipuinek osatzen dute liburu, eta elkarren artean aurki eta ifrentzu moduko lotura bat ere badute zenbaitek. Magrebtarra eta aterkia izenekoak, esate baterako, hemengoek etorkinekiko duten jarrera hipokrita eta epela kontatzen du; eta liburuari izenburua ematen dion Ahazten diren gauzak izenekoak, berriz, etorkinei lagundu nahi dien Kioseko emakume adindu baten arazoei buruzkoa da. Euskal gatazkaren

gaia ere ikuspegi ezberdinetatik jorratzen du: ipuinetako batean, senide bat kartzelan duen bikote baten herdoiltze prozesua ageri da, eta, beste batean, 1990eko hamarkada erdialdeko manifestazioen eta kontramantestazioen zurrumbiloa. Azalean ere hondar-



Nik baso batera eramaten dut [irakurlea] eta hor uzten dut, eta berak pentsatu behar du bukaerarako bidea»

«Gaur egungo bizimodua ikusita, askoz errazagoa izan daiteke ipuinak irakurtzea nobela bat baino»


Aritz Gorrotxategi
Idazlea

tza bat ikusten da, eta txinal batzuk. «Irudi anbiguoak da, eta iruditzen zait ipuinak ere anbiguotasun muga horretan dabilatzala».

Idazleak kontatu duenez, ez dira ipuin biribilak, ez dute bukaera itxirik. «Erdi irekita uztea gustatzen zait. Hala, iruditzen zait irakurleak aukera duela bukaera posible bat imajinatzeko, eta aberasgarriagoa iruditzen zait. Nik, nolabait, baso batera eramaten dut, eta hor uzten dut, eta berak pentsatu behar du bukaerarako bidea». Estilo aldetik, berriz, argiak eta zuzenak direla aipatu du, eta errazkeriari uko egiten diotela: «Literaturan, askotan nahastu izan da zenbat eta ilunago orduan eta sakonago. Hor ditugu Madame Bovary eta Anna Karenina, bi nobela oso argi eta oso ondo idatziak eta oso sakonak».

Sarrituen bertsioak

Bilduman ageri diren zenbait ipuin sarituak izan dira: *Buru leihoan jarrita* eta *Guztiok anaiak* gara ipuinek Gabriel Aresti ipuin lehiaketaren accesita



Aritz Gorrotxategi, Ahazten diren gauzak liburuarekin. JON URBE/FOKU

irabazi zuten, 2017an eta 2015ean, eta Bada hor norbait kontakizunak Ignacio Aldecoa saria, 2015ean. Beste ipuin batzuk, berriz, aurrez beste bertsio batean argitaratutakoak dira. Ahazten diren gauzaketa Magrebtarra eta aterkia, adibidez, BERRIAN argitaratu ziren 2017an eta 2015ean. «Nolanahi ere, ipuin horiek liburu honetan agertzen diren jatorrizko bertsioak dira, eta, zenbait kasutan, oso aldatuta daude».

Gorrotxategiren hirugarren ipuin liburu da Ahazten diren gauzak –Egurra Pinotxori (2002, Alberdania) eta Zer egingo dugu orain opariekin? dira beste biak. «Egurra Pinotxori-rekin zeri-nak txikia dute azken biek: hura literaturarekiko liluratik idatzita-koa zen, eta azken bi hauek, beharbada, bizitzarekiko liluratik, bizi esperientzian oinarrituta». Bestelako generoetan ere aritu izan da idazlea. Harenak dira, besteak beste, *Zaldi hustuak* (2007, Erein) eta *Hariaz beste* (2011, Erein) poema liburuak, eta eleberrri hauek ere bai: *Kafkan*

labankada (2001, Kutxa), *Kearen truke* (2005, Alberdania), *Axola ez duenean* (2009, Alberdania) eta *Koldar hutsa zara* (2015, Erein). Hain zuzen, hamaikagarren liburu da Ahazten diren gauzak: «Futboleko terminologia erabiltza, esan daiteke osatu dudala alineazio bat».

Hala ere, aitortu du azken boladan bereziki erosoa egiten zaiola ipuinak idaztea, bizitzako egoerengatik. «Beti izan naiz saltseroa eta gauza askotan muturra sartu zalea. Beste generoak ere ez ditut arrotzak sentitzen, baina iruditzen zait, gaur egungo bizimodua ikusita, askoz errazagoa eta erakargarriagoa izan daitekeela ipuinak irakurtzea nobela bat baino». Alde horretatik, gaineratu du «falsua» dela nobeletan gehiago sakontzen den ustea. «Luzamenduetan ibiltzen gara, baina iruditzen zait, ipuinetan, eta akaso poesiarako joera ere hortik dator, esan beharrekoa esaten dugula, muinera jotzen dugula. Hori da ipuingintzaren bertuteetako bat».

Europako Zinema Akademiaren saria, Costa-Gavrasi

ZINEMA • Konstantinos Costa-Gavras (Atenas, 1933) zuzendaria Europako Zinema Akademiaren ohorezko saria emango diote abenduaren 15ean. Manoel de Oliveira, Michel Piccolik, Michael Caine eta Andrzej Wajdak ere jasota daukate sari hori. Zinemagile grekoaren «ahots politiko indartsua» nabarmendu du akademiak sariaren berri ematean.

550.000 euro, San Mamesko MTV kontzertuari

MUSIKA • Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak erdibana pagatu dute hilaren 3an San Mames estadioan Berri Txarrak, Crystal Fighters eta Muse taldeek eman zuten kontzertua. Bizkaiko Ekonomia eta Lurralde Garapeneko diputatu Imanol Pradalesak atzo jakinarazi zuenez, 550.000 euro ipini dituzte guztira bi erakunde publikoan artean, eta oso gustura daude emaitzarekin, AEetako MTV kate pribatu estatubatuarren Europako sariaren banaketaren harira Bizkaian antolatutako ekitaldien artean arrakastatsuenetakoa izan zelako. 35.000 pertsona izan ziren San Mamesen kontzertu hori ikusten.

MTV kateak, Bizkaiko Aldundiak eta Bilboko Udalak elkarrekin antolatu zuten MTV Music Week Bizkaia egitaraua, eta Pradalesen esanetan, horren baitako ekitaldiek oihartzun handia lortu zuten nazioartean. Erantsi zuenez, Durangon antolatutako ekitaldiak 5.000 pertsona bildu ziren; Bilboko Miribillakora, 4.000; eta inguru Barakaldokora, 9.000.

Larunbatean jokatu dute Xilabako finala

BERTSOLARITZA • Urriaren 12an abiatu zen taldekako Xilaba txapelketa, eta Mattinsalto eta Dilindan taldeek larunbatean jokatu dute finala, Baigorriko (Nafarroa Beherea) Plaza Xokan, 18:00etan hasita. Mattinsalto taldekako kideak dira: Ellande Alfaro, Xumai Murua, Aitor Servier eta Pantxika Solorzano. Dilindan taldekakoak, berriz: Amets Arzakus, Xan Berterretxe, Ortzidoate, Hodei Renteria eta Nahia Sasko.